

erabaki

Bilbo
2016.VI.11

ORAIN!

XI. Nazio Biltzarra

**Eusko Alkartasuna XXI. mendean
Lerro politikoa etorkizuneko
erronketara egokitu beharra**

.....
Txosten
POLITIKOA
.....



0.- TESTUINGURU POLITIKOA

Biltzar berri baten atarian gaude, 2008. urteaz geroztik bide luzea egin ondoren. Gogora ekarri behar dugu 2008an Eusko Alkartasunak erabaki zuela EAJrekiko lehentasunezko harremana bertan behera uztea.

EAJrekin egindako lehentasunezko akordio eta koalizioei lotutako hainbat esperientziaren ondoren frogatuta geratu zen alderdi horrek ez zituela programa-akordioak bete eta ez zuela benetako borondaterik gure eskubide nazionalen onarpen-prozesu batean erabakitasunez aurrerantz ekiteko, eta ondorioz, hamar urtetik gora EAJrekin izandako harreman hori bertan behera uztea erabaki genuen, eta bide berriak bilatzen hasi ginen gure helburu politikoak lortzeko.

Xede hori gogoan, 2008an Eusko Alkartasunak polo subiranista bat sortu beharra aldarrikatu zuen. Eusko Legebiltzarrerako 2009ko hauteskundeetako hauteskunde-kanpainen gure nortasun-adierazgarria izan zen argi eta garbi eta inolako zalantzarik gabe, eta, 2009ko azaroan *“Eusko Alkartasunaren oinarrizko proposamena Euskal Herriaren independentziaren aldeko akordio subiranista sustatzeko”* proposamena mahaigaineratu genuen; proposamen ausarta zen, indarkeriako eta ETAk eta estatu espainiar eta frantziarrak egindako giza eskubideen urraketako zikloa atzean uzteko helburuarekin, hori guztiz ezinbestekoa baita Euskal Herri osoan indar-batura askotarikoa, subiranista eta ezkertiarra lortu ahal izateko.

Proposamen horrek erantzun positiboa izan zuen garai hartan legez kanpo ziharduen ezker abertzalearen aldetik, eta aukera eman zuen elkarrizketa-prozesu bati hasiera emateko, 2010. urtean Lortu Arte akordioa ekarri zuena, ondoren Euskal Herria Ezkerretik akordioa, eta ondoren, beste zenbait alderdi politikok bat egin ahala, Bildu, Amaiur eta EH Bildu koalizioen sorrera ahalbidetu zuena.

Lehen akordio harrez geroztik gertaerak nola bilakatu diren ikusirik, argi dago Euskal Herriko egoera nabarmen aldatu dela. Errealitate berri horrek Eusko Alkartasunari kontakizun propioa eta funtsezko papera ematen dio, hala euskal nazio-emantzipaziorako mugimenduaren eraikuntzan nola gatazka politikoaren ebazpenaren definizio eta garapenean.

2009an akordio subiranista abian jartzeko mahaigaineratu genuen proposamenean, egoeraren diagnostikoa egin genuen, gure herriak aurrez aurre zeukan bidegurutzea nabarmenduz: Hegoaldean, ETA berriz ere indarkeriara itzuli zen Loiolako elkarrizketek porrot egin ostean, eta euskal gizartean sufrimendua eragin zuen, gehiengo handi batek indarkeria indar osoz gaitzesten baitzuen; ezker abertzalea legez kanpo zegoen estatu espainolaren "dena ETA da" politikaren ondorioz, eta unionismo espainola EAeko eta Nafarroako erakunde nagusien buruan zegoen. Iparraldean, indar abertzaleek lehian ziharduten hautesleria abertzale berez urria berenganatzeko borrokan, Frantziaren aldeko alderdien boterea kolokan jartzeko inolako aukerarik gabe.

Proposamen hura lagungarria izan da egungo egoera desberdina izateko. ETAk borroka armatua behin betiko utzi du, baina oraindik ere desegin arte egin beharreko bidea falta zaio, fronte unionista espainiar eta frantsesak atzera egin du nabarmen, subiranismoa, berriz, EH Bilduren eta EH Bairen eskutik, indar politiko garrantzitsua da Hego eta Ipar Euskal Herrian, eta estatu espainolean aldi berean hainbat erakunde eta mugimendu politiko berri sortu dira, gaur egun zehazgabetasun politiko handiak dituztenak.

Eta, subiranismo berriaren jardun politikoaren esparruari dagokionez, argi dago EH Bilduren eta EH Bairen jarrera politikoen bilakaera ekartzen ari dela ezker abertzaleak jarrera normalizatuak hartzea bake-gaietan (indarkeriazko estrategia baztertzea eta iraganaren berraztertze kritikoa, biktima guztiak onartzea eta ETAk eragindako biktimen omenaldietan agertzea, beharrezko adiskidetzera garamatzan bidearen zati bat egin gabe egonik, eta aldebakartasunetik aurrera egitea adostutako amaiera baten zain egon gabe, Bakerako Euskal Bidea, eta abar.), eta, hori ez ezik, Eusko Alkartasunaren jarrera politiko historikoekin ere bat egitea (autogobernu-alorrean lortutakoa aintzat hartzea, eta, daukagunetik abiatuta, erabateko subiranotasunerantz aurrera egitea, Euskal Bidea, eta abar).

Eta alor sozioekonomikoan ere, mezuetan eta helburuetan bilakaera nabarmena sumatu da, zalantzarik gabe. Esparru sozioekonomikoan Eusko Alkartasunaren nortasun-adierazgarri izan diren postulatu asko EH Bilduren eguneroko ekintza politikoan daude hainbat erakunde-esparrutan, subiranismotik gizartea kezkatzen duten arazo eta

egoerei erantzunez eta oposizio-bokazioa duten alderdiak gure sozialdemokrazia aurreratuko posizioetara hurbiltzea lortuz, aldaketaren aktore aktibo eta kudeatzaile izateko borondatearen isla izanik. Sozialdemokrazia hori aberastasun-banaketa eta kontrol publikoko Europa iparraldeko eredutan dago oinarrituta, ez ordea sozialdemokrazia itxuragabe espainiar edo frantsesean.

Horrela, postulatu horiek EAren praktika historikotik hurbil dauden arren, ez dugu lortu gizarteak era horretan ikustea. Eta hauxe da koalizioaren erronka nagusietako bat: gizarteak gu benetan garenaz jabetzea, hots, koalizio plurala, zentro-ekerra ere barnean hartzen duena, eta sozialdemokrazia aurreratu baten politika ekonomikoak egiten dituen.

Eusko Alkartasunak 2013ko maiatzaren 19an onartutako ponentzia Politiko eta Sozioekonomikoak, ez dute gaurkotatzen galdu. Are gehiago, erreferentzi izaten jarraitu behar dute EAren jardunean, bai EH Bildu, bai EH Bai-ren politiketan eragiten jarraitzeko. Bilbon onartuko dugun ponentzia politiko berria, Barañainen onartutakoaren osagarri izango da.

Azken batean, edozein indarkeria mota erabiliko ez duen ekintza politikoa garatzeari, pertsonak bidegabekerietatik defendatzeari eta justizia sozialean eta Euskal Herriaren eraikuntza nazionalean aurrerantz ekiteari dagokienez bat datozen herritar-sentsibilitate desberdin eta askotarikoak herrialde moduan bideratu ahal izateko ezinbesteko tresna bihurtu behar dute hala EH Bildu nola EH Bai.

Hori dela medio, Eusko Alkartasunaren asmoa da EH Bildu eta EH Bai gehiengo sozial, askotariko eta handi baten erreferentzia izatea, herritarren eguneroko kezka eta erronkei lotuta egongo den eta etengabe eboluzionatzen ari den gizarte dinamiko baten errealitateari erantzunak eskaintzen dizkion indarren eta pertsonen batura bat izatea, alegia.

Historikoki, Eusko Alkartasunaren militantzia oso aktiboa izan da elkartegintza- eta kultura-sarean, baita herritarren plataformetan parte hartuz ere, adibidez Gesto por la Paz, Euskaria, Independentistak edo Gure Esku dago, gure herrian giza eskubide indibidual eta sozialen defentsaren eragile izan direnak. Militantzia hori indibiduala da, EH Bilduko beste alderdi batzuen gizarte-militantzia kolektiboagoko beste modu batzuen aurrean. Adierazi

behar dugu azken urte hauek eragin positiboa izan dutela Eusko Alkartasunan, ikusi baitugu ekintza politiko eta instituzionala nabarmen aberasten direla gizarte zibilaren beste gune batzuetan egindakoarekin koordinatzen badugu. EH Bildun partekatu ditugun gobernuetan eta 2001-2009ko hiruko Eusko Jaurlaritzan izandako esperientziak erakusten digu ez dugula soilik erakunde-esparruan oinarritu behar. Nazioa eraikitze eta euskal estatua lortzeko ezinbestekoa da hori, baina gizarte zibilaren ekimenarekin batera soilik lortuko du aurrera egitea. Eta Kataluniako prozesua dugu horren adierazgarri.

Zalantzarik gabe oraindik bide luzea dugu egiteko, subiranismoa Euskal Herriko erreferentzia politiko nagusia izan dadin lortzeko.

Subiranismoa Euskal Herriko erreferentzia politiko garrantzitsuena izan dadin lortzea jomugan, lehen indar politikoa izan nahi dugu, baina gure asmo hori bene-benetan betetzeko ezinbestekoa da jarrera dogmatikoak alde batera uztea, herritarrengandik hurbil egoteari lehentasuna emanaz eta herritarren aniztasuna errespetatuz. Hau da, gizartearen gehiengoak bere burua ordezkatuta ikus dezan proiektu politiko bat eginez. Zentzu horretan, Gasteizen eskuzabal jokatu dugu PPK alkatetza bereganatu ez zezan lortzeko, nahiz eta horren truke EAJri laga bereganatu gabe zeukan lehen mailako erakunde bakarra, eta aurrerantzean ere ildo beretik jarraitu beharko dugu, eskuzabaltasunez jokatu eta herritarrekin bat egiten duten politikak aurrera eramanez.

Nafarroan ere aldaketa politikoa gauzatu da, eta hori hala izan da, neurri batean behintzat, EH Bilduk eskuzabaltasuna eta erantzukizuna izan dituelako bere jardunaren gidari. Politikan oso ohikoa ez den arren, beste behin ere Eusko Alkartasunak Herriari eman nahi izan dio lehentasuna alderdikerien gaineratik, Euskal Herriko lurralde guztietan bizi garen euskaldunon artean sortutako zuloa ixteko asmo nagusiarekin. Hain zuzen ere, Eusko Alkartasuna sortu zenetik lortu nahi duen helburua, eta PSN, EA eta CDNk osatu zuten eta IUNren babes parlamentarioa zuen baina gauzatu ez zen hiruko gobernu nafarrak ere gorpuztu zuena. Hamarkada luzetan, Nafarroa foral eta espainiarraren defendatzaile sutsuak diren hainbat alderdik sustatutako zuloa, hain zuzen. Aldaketa hori iritsi da Nafarroara, jakina, hainbat sentsibilitate nazional eta ezkertiar batuz.

Hauteskunde-emitzen azterketari dagokionez, onartu behar dugu Bizkaia, eta bereziki "Bilbo Handia", EH Bilduren gaintu gabeko irakasgaietako bat direla. Koalizioa, Euskal Herri osoan biztanle gehien dituen eremuan, EAJtik oso urrun dago boto kopuruari dagokionez, eta hirugarren tokian geratu da Podemosen agerpenaren ondoren. Premiazkoa da mezua, hizkera, moduak, pertsonak eta ideiak egokitzea, Bilboko gune metropolitarrako soziologiarekin bat egiteko. Proiektu hegemonikoaz hitz egiteko ezinbestekoa da EH Bilduk Bizkaian garrantzi handiagoa izatea.

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi txikiena duena zera da, subiranismoa Ipar Euskal Herrian ere aurrera ari dela, erakundeen ordezkartzan lortzen ari den emaitza historikoek frogatzen dutenez. Gainera, gizarte zibilaren hainbat mugimenduren bitartez, ahaleginak batzen ari dira, Euskal Herrian bakea lortzeko, euskara defendatzeko eta euskal herritarren interesei erantzuneko dien sare instituzionala errealitate bihurtzeko. Helburu horiek betetzeko ahaleginean dabilzanek abertzaletasunaren esparru soziala gaintzen dute, eta beraz esparru hori ere aintzat hartzekoa da proiektu subiranista indartzeko.

Hala eta guztiz ere, gure buruari ez genioke batere mesederik egingo ez badugu onartzen hasiera batean Bilduk eta ondoren Amaiurrek sortu zuten ilusio eta konfiantza gutxitu egin direla, batez ere Gasteizko Legebiltzarrerako 2012ko hauteskunderen ondoren.

Europako parlamenturako hauteskundeetan ordezkartza lortzeko helburua bete bazen ere, nahiko argi dago Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderen ondoren EH Bilduren hauteskunde-narriadura nabarmena izan dela eta koalizioak ezarri zituen helburuetatik urruntzen gaituela, baina hala eta guztiz ere azterketa orokor honetatik salbuetsi behar dira Nafarroako udal-hauteskundeetako emaitzak eta Nafarroako Parlamentuan eta Gobernuan hasi den aldaketa politikoa, baita hauteskunde berdinetan Gasteizen eta Araban lortutako posizionamendua ere, lehendik aipatutako aldaketa ahalbidetu baitzuen.

Era berean Espainiako panorama politikoan gertatzen ari den aldaketa kontuan izan behar dugu, eta aldaketa horrek Hego Euskal Herrian izan dituen ondorioak, batez ere Podemos alderdiaren eskutik,

gizartearen zati handi batentzat Estatuaren demokratizazioaren erreferentzia bihurtu baita.

Dena den, badirudi demokratizazio hori lortu baino lehen denbora asko igaroko dela, orain arte hegemonia izan duten alderdien eta berriki sortu diren alderdien interesak bateratzeko garaian sortzen ari diren zailtasunak ikusita, izan ere, abenduko hauteskunde orokorren ondoren zabaldu den eszenatokiak Estatuaren demokratizazioa lortzeko beharrezko aldaketaren aldeko gehiengoak batzeko zailtasuna agerian uzten baitu.

Azken batean, 2015eko maiatzeko eta abenduko hauteskundeetako emaitzen azterketa, betoak eta hautagai-zerrendak egiteko prozesuetan sortutako gatazkak, egitura iragankorren eta alderdien lanaren optimizazioaren inplementazioa, militantzia politikoko eredu klasikoetara atxiki gabeko herritarren artikulazio eta parte-hartzea, eta ekintza politikoa herritarren zuzeneko kezken arabera gauzatu beharra kontuan izanik, Eusko Alkartasunaren militante guztien proposamenak eta balorazioak bilduko dituen eta parte-hartze prozesuen artikulazioan aurrerantz jarraituko duen hausnarketa konstruktibo sakona egin beharra dago.

Ondorioz, beharrezkotzat jotzen dugu eztabaida hori bi eremu oinarritzat hartuz egitea:

1. Euskal Herriak behar duen EH Bai.
2. Euskal Herriak behar duen EH Bildu.

1.- EUSKAL HERRIAK BEHAR DUEN EH BAI

Ipar Euskal Herriko errealitate soziologikoari erreparatzean zera ikusten dugu, alderdi abertzaleek ez dutela gizartearen gehiengoaren babesa, eta horri erantsi behar zaio abertzaleak hainbat alderdi politikotan sakabanatuta daudela. Horregatik, boto abertzaleak oso barreiatuta ibili dira betidanik eta abertzaletasunak ez du inoiz ordezkari-tza instituzional iraunkorrik lortu, alkate eta zinegotzi batzuk herri txiki batzuetan, besterik ez.

Errealitate horri erantzuteko helburuarekin, 2007. urtean Euskal Herria Bai hauteskunde-koalizioa eratu zen Frantziako legegintza-hauteskundeetarako, Abertzaleen Batasuna, Eusko Alkartasuna eta Batasuna alderdiek osatuta, eta emaitza itxaropentsuak lortu zituen bozetan.

Nolanahi ere, EH Bairen funtzionamendua gorabeheratsua izan zen ondorengo urteetan, koalizioa aldi behin bakarrik osatu zelako, eta ez hauteskunde-erronka guztietarako. Gizarteari ez genion jarraitutasun-irudi argirik helarazten, eta horregatik hauteskundeetan babes eskasa lortzen genuen, Ipar Euskal Herrian aldetaren tresna bihurtzeko babes urriegia.

Gauzak horrela, hiru alderdi politikoen eztabaida-prozesu bat ireki genuen alderdi guztietako kideen parte-hartzearekin, baina parte-hartzea zabaldu nahi izan genuen, Ipar Euskal Herriko bizitza politikoen hainbat eremutan baziharduten ere, alderdi politikoen kide ez ziren hainbat pertsonarentzat.

Zenbait hilabetetako eztabaiden ondoren, 2014ko abenduan erabaki genuen Euskal Herria Bai mugimendu politikoa eratzea, ezkerreko abertzaletasun aurrerakoien erreferentzia komun eta iraunkor bihurtzeko helburuarekin.

Goiz da oraindik azken etapa horren nondik norakoa baloratzeko, baina azpimarratzekoa da aldetaren horrek, mugimendu izatera pasatzeak eta alderdietako kide ez direnei ateak irekitzeak, ekarri duen herri aktibazioa. Herriz herri, EH Bai bestelako ipar Euskal Herri bat eraikitzeko lan-tresna ireki eta anitza bilakatu da eta hauteskundeetako emaitzei begiratuta lasai asko esan dezakegu

azken erabaki hori beste urrats bat izan dela EH Bai erreferentzia gisa bermatzeko bidean. Adibide gisa esan dezakegu 2008ko eta 2012ko hauteskunde kantonaletan EH Baik barruti bakar batean lortu zuela bigarren itzulira pasatzea. 2015ean, ordea, 12 barrutitik 5etan egin du aurrera eta bigarren itzulira igaro, eta bakoitzean aulki bat lortu du gainera.

EH Bai boto baliagarria erakartzen duen indarra da une honetan, Ipar Euskal Herriko hiru alderdi nagusien artean kokatu delako, hain zuzen ere sozialisten eta eskuinaren alternatiba bilakatu da. Alde batetik, Euskal Herriarekin konprometitu nahi duten militanteak erakartzen ditu koalizioak, besteak beste 2001ean ABren eta Batasunaren arteko zatiketarekin ados ez zeudenak, militanteen arteko tirabirek gizarte-proiektua bigarren maila batean uzten zuten garaian. Orain, aldiz, denek bat egin dute bake-prozesua martxan jartzearen behararekin, eta horren ildotik berradiskidetzea etorri da, hau da, abertzaleak gai izan dira iraganeko desberdintasun ideologikoak gainditzeko.

Bestalde, EHBai herritarren interesak gertutik ezagutu eta defendatzen dituen aukera bihurtu da frantziar Estatuko alderdi zentralista eta handien parean, tokian tokiko ekonomia eta gizarte bestelako eredu sostengarriaren defentsan ari dena.

Zentzu horretan azpimarratzekoa da Eusko Alkartasunak zeresan handia izan duela EH Bai sendotzeko fasean, koalizioan parte hartzeko baldintza jakin batzuk jarri dituen heinean, batetik, bide demokratikoak soilik erabiltzea, eta, bestetik, ekimena esparru nazionalako estrategia baten barruan kokatzeko konpromisoa, orain artean hauteskundeetan izan duen aldizkako presentzia gaindituz, egoeraren arabera alderdi politiko baten edo bestearen interesei soilik begiratu gabe.

Abertzaletasuna argi eta garbi gutxiengoa den ingurune batean, alderdi politiko abertzaleen arteko desadostasunek uxatu egin dituzte sarri Euskal Herriaren alde lan egiteko eta ekarpenak egiteko prest zeuden pertsona asko, eta gaur egun esan dezakegu Ipar Euskal Herrian guztion proiektu politiko baten alde egiteko prest dagoen jendea neurri handiagoan datorrela alderdi politiko abertzaleen kanpotik barrutik baino. Alderdien zeregina funtsezkotzat jotzen da ildo horretan, hainbat alorretan duten eskarmentu eta esperientzia aintzat hartuta: hauteskunde-kanpainen antolaketa, sareen aktibazioa, kontaktuak, mugimenduaren bizitza demokratikoaren

antolaketa, militanteen prestakuntza, mugimenduaren lehen ahalegin ekonomikoari eustea... Eta garrantzitsua da, halaber, EH Bairen baitan ideia-aniztasuna erakustea, ezker erradikaletik hasi eta sozialdemokraziarekin buka, sentsibilitate guztiek aurrera egitea beharrezkoa delako.

Eusko Alkartasunaren ustez, EH Baik Ipar Euskal Herriko herritarren erreferente nagusi bihurtu behar du, abertzaletasunetik haratago joanez ere. Parisen mende ez dagoen, soil-soilik Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako gizon eta emakumeak oinarri izango dituen eta haien esanera jardungo duen erreferentzia izan behar du.

Horretarako, ezinbestekoa izango da beste plataforma batzuekin lankidetzak sakontzea, adibidez Batera plataformarekin, herritarren zati handi baten premiekin bat egiten duelako eta abertzaletasuna indarkeriazko gatazkarekin lotu duen eszenatokia gainditzeko aukera ematen duelako.

Herri Elkargo bakarra lortzea aurrerapen bat izango da autogobernurako, eta EH Baik eszenatoki horretan ere bultzatzaile nagusi izan behar du. Herritarren bizi-baldintzak hobetzeak proiektu nazionalerako beharrezkoa den babesa ekarriko du ondorio gisa, baina hori lortzeko, indar abertzaleek historikoki okupatu dituzten espazioak gainditzeko eta asmo handiz jarduteko gai izan behar du EH Baik.

2.- EUSKAL HERRIAK BEHAR DUEN EH BILDU

EH Bilduren ibilbidea eta bilakaera desberdina izan da Hego Euskal Herrian.

Hasiera gatazkatsua izan zen, baina bizi-bizia aldi berean, eta koalizioak, Bildu izenarekin, 300.000 boto baino gehiago lortu zituen udal- eta foru-hauteskundeetan. Hurrengo urte eta erdi eskasean beste bi hauteskunderi aurre egin behar izan zien, bi hauteskunde-marka desberdinekin gainera: Amaiur 2011ko hauteskunde orokorretan, eta EH Bildu, gure behin betiko marka, 2013ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan.

2011-2015 etapan EH Bilduk ordezkariitza zabala eduki du hauteskundeetan, hainbat udaletako gobernuen buruan egon garelako Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan, baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernuaren buruan ere, eta etapa horren balorazioa egitean onartu beharrean gaude gobernatu ditugun erakunde guztietan ez dugula asmatu hasiera hartan sortutako itzaropen handiei erantzuten.

Lau urte hauetan hainbat lurralde-errealitate ezagutu ditugu bidean, eta EH Bilduk era batera edo bestera erantzun du errealitate horien guztien aurrean. Trukean, gizartearen aldetik ere babes-maila desberdinak izan ditugu gurean.

2011n Bilduk gizarteari ilusioa transmititzen jakin zuen, haize berria zekarrelako, gatazka eta sufrimendu-egoerak gainditzeko baliagarri. Lehengo desadostasunak akordio bihurtu zituen, eta barreiatuta zegoena bateratzeko gauza izan zen. Azken batean, EH Bildu osatzen dugunok batzen gaituena indartu beharra zegoela erakutsi genuen, alderdi politikoen arteko desberdintasunen eta ibilbide desberdinen gainera, hau da, beste ezeren gainera burujabetzaren aldeko proiektu politikoa bultzatu beharra zegoela ikusi genuen, alderdi politikoen artean adostutakoa.

2015. urtean gizarteak EH Bilduri emandako konfiantzak beherakada izan du, eta abisu horrek behartzen gaitu hausnarketa proposatzailea, estrategikoa, intelektuala eta politikoa egitera, EH Bildu egungo eta etorkizuneko erronka aldakorretara konektatuta dauden erantzun

posibilistak eskatzen dituen gizarte plural baten eskaera eta kezkekin lotzen duena.

2011tik orain arte izan diren hauteskundeetako emaitzak aztertuta argi ikus daiteke 2015. urtea herritarren atxikimenduari dagokionez inflexio-puntu larria izan dela udaletarako, Batzar Nagusietarako, Nafarroako Parlamenturako eta, duela gutxi, Espainiako Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetan.

Emaitza horien arrazoi ugarietako bakoitzari bere dimentsioa ematea zaila da. Hala eta guztiz ere, honako hauek adieraziko ditugu:

- EH Bildu osoa ezker abertzalearekin eksklusiboki identifikatzea, eta koalizioa osatzen dugun gainerako alderdiek erreferentzialtasuna galtzea.
- Gure ekintza politikoa "politika zaharrarekin" lotzea, gizartearen zati handi batek eta, bereziki, gazteek erakundeetan konpromiso politikoak eta ordezkaritza-konpromisoak hartzeko egiten dituzten eskaera berriei erantzuteko ahalmenik gabe. Argi dago EH Bilduk akatsak egin dituela eta ez duela epe luzerako ikuspeirik izan herritarrak kezkatzen dituzten premia eta arazo nagusiak identifikatzeko garaian eta, beraz, gizarte-kohesioa galdu duen, eta desberdintasunak eta gizarte-bazterkeria handitu dituen gizarte polarizatu baten premiei erantzuteko irtenbideak eta dinamikak bideratuko dituzten proposamenak, prozesuak eta estrategiak planteatzeko garaian.
- Estatu espainiar eta frantsesak egiten duten bake-prozesuaren blokeoa, EH Bilduk prozesuarekin duen konpromiso-maila, eta indarkeria eta bere ondorioak dagoeneko herritarren kezka nagusien artean ez daudela egiaztatzeak, ematen duen sententzia da -mediatikoki bultzatzen dena- koalizio arduratuta dagoen gai bakarra hori dela -batez ere presoan gaiari dagokionez-.
- Erakundeen kudeaketan egindako akatsak, politika zaharraren ohituren ondoriozkoak, politika sektorialen ezarpenaren azkartasuna parte-hartze printzipioen aurretik jarritz, batez ere herritarrengan sentiberatasun handia duten proiektu eraldatzaileei lehentasun politikoa emanaz beharrezko

pedagogia egin gabe eta entzute aktiboko, parte-hartzerako eta erabaki-hartzerako mekanismo demokratikoak aktibatu gabe. Gipuzkoan hiri-hondakinen kudeaketa eta tratamendu integral berriaren kasua da akats horien adibide garbia, hainbat alderdik –adibidez EAJk– eta komunikabideek akats horiek areagotu dituztela ahaztu gabe, euren interes partikularretan oinarrituz gizarte osoarentzat birziklatze-kuota eraginkorrak lortzea oztopatu baitute.

- EH Bilduren, alderdien eta, oro har, gizartearen planoak uztartu behar dituen proiektu politikoak antolaketa-arkitekturaren egitura-definizioari eta erabakiak hartzeari dagokionez dituen gabeziak.
- Gipuzkoaren kasuan, adierazi behar da “antibildu” fronte indartsu bat gauzatu dela, komunikabide handi batzuen laguntzarekin, eta indar handiz jardun zuela EH Bildu gobernatzan ari zen erakundeetatik kanpora ateratzeko helburuarekin.

EH Bilduk bilakaera bat izan duen arren, bere esparrua zabaldu ordez murrizten joan da, eta Eusko Alkartasunaren diskurtsorik eza ere lagungarria izan da murrizketa horretan.”

Arrazoi horiekin guztiekin batera aipatu beharko genuke Euskal Herrian irakurle eta entzule gehien dituzten komunikabideak EH Bilduren proiektuaren aurka daudela; bereziki salatze modukoa da Eusko Alkartasunak eta EH Bilduk EITBn jasotzen dugun tratua, komunikabide publikoa den heinean. Hala eta guztiz ere onartu beharra dago EH Bilduk ez duela bere aniztasuna, lau alderdiren batura baino zerbait gehiago dela transmititzen jakin izan gizaratean, eta EH Bildu eta Eusko Alkartasuna ez garela gai izan errealitate horretan oinarritzen den eta errealitate hori gainditu nahi duen komunikazio-estrategia eraginkorra egiteko.

EH Bilduren proiektu politikoari atxikitako herritarren aniztasunak murrizketa handia jasan du, eta horrek nahi ez ziren honako hiru ondorio hauek ekarri ditu: EAJ indartzea, botoek beste alderdi batzuetara ihes egitea, adibidez Podemosera eta abstentziora.

Eusko Alkartasunaren eta, beraz, EH Bilduren helburua aipatu ondorioei irtenbide bat aurkitzea izanik, beharrezkotzat jotzen dugu hainbat neurri aplikatzea, eta honako proposamen hauetan zehazten dira:

- Alderdi bakoitzaren erabakitzeko eta adierazpen politikoko esparruak errespetatzea, EH Bildu indarren batura baita, batzen dituen garatu nahi dutenak baina nortasun-adierazgarrietako bat aniztasuna izanik. Aniztasun hori ez da soilik pertsonatan islatzen, koalizioa sortu zuten erakundeetan ere islatzen da.
- Herritarrek gure erabaki eta proposamenetan parte hartzeko duten ahalmena zabaltzea, eta erakunde- eta gizarte-eremuetatik parte hartzeko eta eztabaidatzeko prozedura irekiak eta askotarikoak diseinatu eta bultzatzea, eremu horietan gure proposamen politikoak definitzeko.
- Politikaren praktikari dagokionez, eta edozein eremu demokratikorentzat eskatzen dugun gardentasunarekin bat etorriz, EH Bilduk bere kontu eta soldata guztiak eta kudeaketa ekonomikoa jendaurrean jartzeko konpromisoa hartzea, eta bere jarduera politikoan egiten dituen zerbitzu-kontratazio guztiei irizpide sozialak eta lehia librearen irizpideak aplikatzea.
- Beharrezkoa da EH Bilduren mezua eta ekintza politikoa orekatzea, dibertsifikatzea eta zabaltzea, EH Bildu proiektuari lotuta dauden alderdiek eta pertsonak dituzten sentsibilitate desberdinen akordioaren eta puntu komunen emaitza izan dadin, EH Bildun parte hartu behar duen eta guk ordezkatu nahi dugun gizarte- eta herritar-multzo zabalaren ikuspegi eta ñabardura guztien laburpen gisa.
- Horrek dakar denok onartzea EH Bildu askotariko indarren eta pertsonen batura handi bat dela, bakoitza bere nortasun eta berezitasunekin, eta oinarrizko ideario desberdinekin, eta, hala eta guztiz ere, bere jardueran eraginkortasunak eta kudeaketaren efizientziak izan behar dute nagusi herritar gehiago EH Bilduren printzipio politikoetara eta hauteskunde-

eskaintzara erakartzeko garaian, eta beraz, edozein alderdiren interes hegemonista saihestu behar da.

- Barne-antolaketari eta erabakiak hartzeko prozesuei dagokienez, parte-hartze irekiko mekanismoak gauzatuko dira, EH Bildu osatzen duten alderdien alde aurreko adostasuna beharko dutenak. Eta, edozein kasutan, Eusko Alkartasuna arduratuko da bere ekarpena kongresuko ildo politikoekin eta antolaketa-ildoekin erabat bat etor dadin.

Printzipio berari jarraituko zaio hauteskunde-zerrendak egiterakoan eta erakundetako presentzian, alderdi politiko bakoitzaren presentzia justua ziurtatzeko, eta hautespen-prozesua adostasuna lortu ondoren definituko da, betorik eta baztertzetik gabe, eta alderdi bakoitzaren barne-prozesu espezifikoak errespetatuz. Horrez gain, saiatuko gara zerrenda horietan dauden pertsonak egokiak izateaz gain ahalik eta onenak izan daitezela, euren jatorria edozein izanik ere. Zerrendak egiterakoan hautsi egin den lekuetan EH Bildu berriz osatzea ere Eusko Alkartasunaren eta EH Bilduren zeregina izango da.

EH Bilduren bozeramaile-zereginak, eremu orokorrenetan, koalizioa osatzen dugun alderdi politikoekin organikoki lotuta ez dauden pertsonak beteko dituzte, betiere koalizioaren izaera plurala kontuan izanik.

- EH Bilduk, koalizioa osatzen dugun alderdien nola gizartean egunez egun sortzen diren militantzia eta partaidetza politikoen tradizio eta modu desberdinak onartuko ditu, praktika eta partaidetza politikoa kanon edo eredu bakar batera homogeneizatzeko aukera saihestuz. Ildo horretan, arreta berezia eskainiko die Euskal Herriko hainbat lekutan udal-hauteskundeetarako elkartzen diren auzo-plataformei.
- EH Bilduk elkarrizketari eta batzen gaituenari lehentasuna emango die aldentzen gaituenaren aurrean, eta akordioak bilatzea izango du ezaugarri nagusi gisa hala barne-mailan nola Euskal Herrian eragina duten eremuetan diharduten gainerako alderdiekin.

Horrela, EH Bilduk euskal herritarrak bozkatzera deitzen dituzten hauteskunde-prozesu guztietan hartuko du parte, beste alderdi batzuekin elkarrizketa eta akordioen bitartez atxikipen zabalagoak lortzeko asmoa izango duten programa bat eta jardun-estrategia bat aurkeztuz. Ondorioz, legegintzaldi-akordioak, itundutako gobernu-planak eta helburuen betetzea Ebaluatzeko plan bat egingo dira, aldizka informatu eta baloratuko direnak.

- Azterlan sozioekonomikoen Lantalde bat sortzea honako helburu hauekin: herritarren errealitate eta kezka berriak atzematea, gizartea osatzen dugun sektoreen kezkak eta erronkak lokalizatzea, eta bertako, estatuko eta nazioarteko eremuetatik proposatzen diren joerak eta erantzunak aztertzea. Azterketari dagokionez bereziki aipatu behar da ezagutu behar dela botoa nola banatzen den eta nolako profila duen Euskal Herria osatzen duten biztanlegune handietan, eta bereziki hiriburuetan eta horien hiri-inguruetan.
- Lehen, orain eta beti, aniztasunak EH Bilduren ezaugarri orokorra izan behar du. Gizarteak proiektu politiko plurala eta askotarikoa eskatzen digulako, pertsona guztiak onartu eta errespetatuko dituen proiektu bat, bakoitzaren generoari, erlijioari, etniari, sinesmenei, sexu-orientazioari, jatorriari, kulturari edo hizkuntzari begiratu gabe. EH Bilduren gizarte-esparruaren postulatu ideologikoekin bat egiten duten guztiek dute tokia gurean. Bestalde, emakumeak politikan duen zeregina bereziki azpimarratu beharra dago. Emakumeak berez dagokion lekua okupatu behar du politikan eta gizartean oro har; eta arreta handiz zainduko da emakumeen presentzia eta parte-hartzea hala barne-mailan nola kanpo-mailan karguak hautatzen direnean eta hauteskunde-zerrendak egiten direnean.